

HEMERETZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

KONTROLATU GABEKO ABEREAK ETA ETXEKO ANIMALIA ABONDONATUAK JASOTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEAGATIK EZARTZEN DIREN TASAK

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurrusitakoari jarraiki, hurrengo tasa ezarri eta eskatuko du, hain zuzen, udalerritik inolako identifikaziorik gabe harat-hona aske dabiltzan kontrolatu gabeko abereak jasotzearen eta etxeke animalia abandonatuen zerbitzu integrala eskaintzearen, edo, nahiz eta identifikazio ofiziala izan, une bakoitzean indarrean dauden arau aplikagarriak betetzen ez dituzten abereak, jasotzearen.

2. Artikulua.- Ordenantza, udal barrutiko eremu osoan, aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.- Zergapeko egitatea sortuko da, Udalak kontrolatu gabeko abereak edo etxeke animalia abandonatuak jaso eta horren ondoriozko zerbitzuak eskaintzen dituenean, hain zuzen horiek udalerritik inolako identifikaziorik gabe harat-hona aske ibiltzearen, edo, nahiz eta identifikazio ofiziala izan, une bakoitzean indarrean leudeken arau aplikagarriak ez betetzearen; eta jasotze hori egingo da, bai eskatu egin delako, edo bai, kontrolatu gabeko abereen edo etxeke animalia abandonatuen arduradunek egindako ekintzek edo ez-egiteek hori egitea behartu dutelako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.-

1.- Zergadun gisa, subjektu pasiboak dira, Zergaren gaineko Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorraren 34 artikuluan adierazten diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta horiek, Udalerrian kontrolatu gabeko abereak edo etxeke animalia abandonatueak jasotzeko zerbitzua jasotzearen, onuradun suertatzen badira edo horren eraginpean gertatzen badira.

2.- Kontrolatu gabeko abereak jasotzearen ondorioz edo etxeke animalia abandonatuen zerbitzu integrala izatearen ondorioz ezarri diren tasetan, aipatu abelburuen edo esandako animalia jabeek zergadunen ordezkioak izango dira, eta horiek, bestalde, eskubidea izango dute, bere kasuan, kuotak dagokien onuradunen gain ezarriak izan daitezzen.

5. Artikulua.- Tasak hurrengo norbanako hauek ordaindu beharko dituzte, hain zuzen, beren ekintza edo ez-egiteen ondorioz, kontrolatu gabeko abereak jaso edo etxeke animalia abandonatuari zerbitzua eskaini behar izan zaienean.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.- Zerga-salbuespenak edo beste zerga-onurak ematea, aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoari lotuko zaio.

V. ZERGA-OINARRIA

7. Artikulua.- Zerga-oinarria, kontrolatu gabeko abereen edo etxeke animalia abandonatuen bilketa gauzatzean, horietako abere edo animalia bakoitzak osatzen du, Eraskinetan agertzen diren terminoen arabera.

VI. KUOTA

8. Artikulua.-

1.- Zergaren kuotak, onetsitako tarifen aplikazio bateratutik ondorioztatzen den kopurua izango du, Eranskinetan ezarrita bezala.

2.- Kontrolatu gabeko abereen edo etxeko animalia abandonatuen bilketak, udal jabari publikoaren suntsiketa edo kaltetzea ere sortuko balu, onuradunak, ordaindu behar lukeen tasa ordaintzearen kalterik gabe, berreraikitze edo berritze gastuei dagokien kostu osoa itzultzeko obligazioa izango du, eta zenbatekoa aurretiaz jartzeko obligazioa ere izango du.

3.- Kalteak konponezinak izango balira, Udalari, suntsitutako ondasunen balio bereko zenbatekoa izango duen indemnizazio eman beharko zaio, edo kaltetuaren narriadurari dagokion zenbatekoa.

Udalak ezingo ditu, ez osorik, ez zati batean, barkatu aurreko ataletan adierazten diren indemnizazio eta itzulketak.

VII. SORTZAPENA ETA EZARPEN-ALDIA

9. Artikulua.- Tasa, kontrolatu gabeko abereak jasotzen direnean edo etxeko edozein animalia abandonaturi udal zerbitzua eskaintzen zaionean, sortuko da.

VIII. LIKIDAZIOAK ETA SARRERAK

10. Artikulua.- Udalak eskatuko du tasa autolikidazio sistema bidez ordaintzeko. 2. Eranskinean aurreikusitako kasuetan, autolikidazioa eta ordainketa animalia jabeak edo titularrak egingo du, Udaltzaingoaren bulegoetan, animalia harrera-zentrotik jaso aurretik. Zentroak, bere aldetik, ordainagiria aurkezteko eskatuko dio jabe edo titularrari, animalia entregatu baino lehen.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako Tasen gaineko likidazio, bilketa eta ikuskapena den bezainbatean, hala nola, zerga-arauhausteen sailkapenari, eta kasu bakoitzean, legokiokeen zigorra zehazteari dagokion bezainbatean, Lurralde Historikoko Zergen gaineko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarri.

X.- XEDAPEN GEHIGARRIA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorriz, datu egokiak, beharrezkoak eta

ezinbestekoaren neurrira mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25ea, 2012eko azaroaren 19a, 2014 urriaren 30ea, 2016 azaroaren 24a, 2017ko urriaren 26a, 2018ko urriaren 25ea, 2019ko urriaren 30ea, 2022ko urriaren 27a, 2023ko urriaren 26a, 2024eko urriaren 30ea eta 2025eko abenduaren 29a osoko bilkuran)

ERANSKINA. 1.-KONTROLATU GABEKO ABEREAK

1.-ABEREAK JASOTZEA:	2026
1.1.- Langileen gastuak (LANG./ORDUA)	22,00
1.2.- Joan-etorriak (KM.)	6,00
1.3.- Atzemateko materiala (XIRINGAK, GEZIAK)	96,00
2.-ABEREEN MANTENIMENDUA (EGUNA)	-
2.1.A.- Azienda handia. Lehen abelburua	40,00
2.1.B.- 2. abelburua eta hurrengoak	15,00
2.2.A.- Azienda txikia. Lehen abelburua	25,00
2.2.A.- 2. abelburua eta hurrengoak	11,00

ERANSKINA. 2. ETXEKO ANIMALIA ABANDONATUEN ZERBITZU INTEGRALA

1.--TXAKUR ETA KATU SOLTEAK, GALDUAK EDO ABANDONATUAK HARRAPATU ETA JASOTZEA (Salbuespena: txakurrak lapurtu edo galduak badira, edo katuak kolonietakoak badira)	
1.1.- Txakur eta katu solteak, galduak edo abandonatuak harrapatu eta jasotzea.	67,00
1.2.- Urtea pasa baino lehenago, berriro ere, jasotzea	133,00
1.3.- Urtea pasatu baino lehenago hirugarrenez edo gehiagotan jasotzea.	200,00
2.- TXAKURRAK ETA KATUAK ZONA PRIBATUETAN JASOTZEA	72,00
3.- KATUAK HARRAPATZEKO KATU-ONTZIAK JABETZA PRIBATUETAN JARTZEAGATIK (Katu-ontzia ipini ,instalazioetara eraman eta zaindu bitartean asteko gastua)	39,00
4.- ANIMALIA EUTANASIARAKO ENTREGATZEA.	118,00
5.- 40 KG ARTEKO ANIMALIEN ERRAUSKETA	57,00
6.- 40 KG BAINO GEHIAGOKO ANIMALIEN ERRAUSKETA	62,00
7.- MIKROTXIPA JARTZEA ETA ERREGISTROA	46,00
8.- ADOPZIOA	-
8.1 - Txakurraren adopzioa	32,00
8.2 - Antzututako txakurraren adopzioa	67,00
8.3 - Katuaren adopzioa	32,00
8.4 - Antzututako katuaren adopzioa	37,00
9.- INSTALAZIOETAN TXAKURRAREN EGUNEKO EGONALDIA. (Albaitariaren gasturik baldin badago, ospitaleratzeagatik, presako ebakuntza kirurgikoagatik edo, jabeak ordaindu beharko du).	14,00
10.- INSTALAZIOETAN KATUAREN EGUNEKO EGONALDIA. (Albaitariaren gasturik baldin badago, ospitaleratzeagatik, presako ebakuntza kirurgikoagatik edo, jabeak ordaindu beharko du).	13,00
11.- TXAKUR BATEN EGONALDIA INSTALAZIOETAN ETA TXOSTENAK, HAGINKA EGITEAGATIK DEKRETATUTAKO BERROGEIALDIA DELA ETA	358,00
12.- JAKINARAZPEN FROGAGARRIA MASKOTAREN JABEARI ANIMALIA BERRESKURATZEKO	16,00
13.- TXAKURRAREN ARRISKU MAILARI BURUZKO ADITU-PROBAK ETA TXOSTENAK EGITEA	67,00